

GIZARTE EKONOMIAREN SUSTAPENERAKO POLITIKA PUBLIKOAK EUSKADIN¹

BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI

Saila: Ekonomia Aplikatua I (UPV/EHU)

GEZKI Institutuko zuzendaria

ANJEL ERRASTI AMOZARRAIN

Saila: Finantza Ekonomia II (UPV/EHU)

GEZKI Institutuko ikerlaria

ENEKOITZ ETXEZARRETA ETXARRI

GEZKI Institutuko ikerlaria

JON MORANDEIRA ARCA

Gizarte Ekonomiaren Euskal Behategiko teknikoa

GEZKI Institutuko ikerlaria

LABURPENA

Lan honekin Gizarte Ekonomia sustatzera eta indartzera zuzenduta dauden Euskal Herriko politika publikoen mapa islatu nahi da. Lana Europako ongizate eredu desberdinetan burututako politika publiko nagusien tipologia bat aurkeztuz hasten da. Jarraian, euskal Gizarte Ekonomiaren errealitatea islatzen duen azterketa deskriptiboa egiten da. Hirugarren atalean euskal Gizarte Ekonomiako politika publikoen gaia lantzen da, eta bertan, sekto-

1. Lan honek GEZKI institutuak EZAI fundazioarentzat egindako txosten batean du abiapuntua.

rearen euskarria diren erakunde eta tresna nagusiak aipatzen dira, bakoitzean burututako politikak zehaztuz. Azkenik, ondorio modura, Gizarte Ekonomiari zuzendutako politiken garapenerako ildo nagusiak azpimarratzen dira.

Gako hitzak: Politika publikoak, Gizarte Ekonomia, Euskal Herria.

1. SARRERA

Ikerketa lan honen xedea Gizarte Ekonomia sustatu, zabaldu eta bultzatzeko asmoz Euskal erakunde publikoek diseinatutako politika publikoak aztertzea da. Ikerketa Euskal Autonomia Erkidegora (EAE) edo Euskadira mugatzen da, erkidego honek eskuduntza zuzenak baititu kooperatiba-legeriari, kooperatiben erregimen fiskalari eta lan sozietateei dagokienez, azken hauek estatuko legeak arautzen baditu ere.

Europako eremuan ezarritako politika publikoak bi alderdietan izan dezake eragina: eskariaren edo eskaintzaren alderdian. Euskal kasuari dagokionez, ia politika publiko guztiak eskaintzari zuzenduta daude, laguntza finantzario eta fiskal handiak eskainiz. Era berean, eta batez ere kooperatibak, hainbat erakundeez hornitu dira, eta hauen helburua bermea, sustapena eta zabalkuntza eskaintzea da. Erakunde horietako gehienak Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak bultzatuak izan dira.

Ikerketa lan hau egiteko Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren aurrekontu-datuak erabili dira. Horiez gain, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren eta urtero ematen diren laguntzak baliatu dira. Eusko Jaurlaritzak egindako 2004-2006 biurtekoko Euskal Gizarte Ekonomiaren estatistikak ere jaso dira, eta baita Eusko Jaurlaritzak gai honi buruz egindako beste hainbat argitalpen ere. Kooperatiben eta lan sozietateen fiskalizazioaren trataera kontzertu ekonomikoetan eta kontzertu ekonomiko horietatik abiatuz garatu diren kooperatiba eta lan sozietateei buruzko foru-arauetan bilduta dagoen Euskal zerga-sisteman oinarritzen da. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren kudeaketa planak eta memoriak izan dira euskal kooperatiben euskarri izan diren erakundeei buruzko informazio lortzeko iturri nagusiak.

Ikerketa lan honek, hasierako sarreraz eta ondorio orokorrez gain, hiru atal nagusi ditu. 2. atalean Europako lau ongizate eredu desberdinen bilakaera aztertu eta Gizarte Ekonomiako enpresen sustapena bultzatzeko politika motak sailkatzen dira. 3. atalean euskal Gizarte Ekonomia definitu eta kuantifikatzeko proposamena aurkezten da. 4. atalak euskal erakunde publikoek Gizarte Ekonomiari laguntzeko emandako politika publikoak aztertzen ditu. Azkenik, lana ondorio batzuekin amaitzen da.

2. MARKO TEORIKOA: ESTATUAREN PARTE HARTZEA ETA POLITIKA PUBLIKOEN TIPOLOGIA

2.1. Ongizate ereduak eta Gizarte Ekonomia

Europako Gizarte Ekonomiaren sustapenerako politika publikoen tipologiak elkarren artetik urrun daude, eta espero bezala, herrialde bakoitzean hamarkada luzeetan osatutako hazkuntza ereduaren eta ongizate ereduaren menpe agertzen dira. Era berean, ulertzekoa da garapen eredu bakoitzak egitura hau osatzen duten gizarte instituzio bakoitzari protagonismo desberdina esleitzen diola, adibidez, merkatuari, familiari eta gizarte zibila edo hirugarren sektoreari. Gauzak honela, estatuaren presentzia sozioekonomiko handia duen herrialde batean, edo herrialde honetan ongizatearen hornidura soilik familia esparruaren edo elkartegintzaren esparruaren gain badago, erabat ezaugarri desberdinak izango ditu ezarritako ereduak.

Beraz, Europa mailan ezarritako “ongizate eredu” desberdinen lehen hurbilketa bat egitea beharrezko bilakatzen da, errealitate hori herrialde bakoitzeko Gizarte Ekonomia izandako bilakaerarekin erlazionatuz. Hau guztia, jasotzen ditugun errealitateei erantzuten dien politika publikoen tipologia desberdinak osatzeko egiten da.

Esping-Andersenek (1990) eman zuen eta gaur egun oraindik indarrean dagoen sailkapen hedatuenera jarraituz, ideologia politiko zehatzei lotua, ongizate eta enplegu politika publikoei dagokienean arras ezberdinak diren hiru oinarritzko eredu desberdintzen dira: erregimen unibertsala duen eredu sozialdemokrata, eredu kontinental-korporatibista eta eredu liberal-duala. Rodriguez Cabrerok (2000) sailkapen hau pixka bat gehixeago garatzen du, izan ere, eredu liberal-dualaren barnean, bi azpi-eredu aurkitzen ditu: anglosaxoniarra bata eta latino-mediterranearra bestea. Azken lau eredu hauetatik, lehenengo biek estatuaren presentzia handia izatea dute ezaugarritzat, bai sektore publikoak berak ondasun eta zerbitzuen ekoizpen eta banaketan parte hartze handia izan duelako (eredu sozialdemokrata edo nordikoa) edo bai sustapenean eta erregulazioan izandako eragin garrantzitsuarengatik (kontinental-korporatibista). Aitzitik, azken bi ereduak, hau da, anglosaxoniarrak eta latino-mediterranearrak, izaera liberal/kontserbadoreagoa dute. Gauzak honela, aberastasuna sortzea eta banatzea nagusiki merkatuaren jardunetik letorke, beste zenbait gizarte erakunderen jarduera osagarriarekin batera, esaterako familia zein hirugarren sektorea.

Eredu horietako bakoitza Gizarte Ekonomia mota bati lotzen zaio, eredu bakoitzak markatuta dituen funtzioen banaketarekin bat etorritik. Alde batetik, eredu nordikoan sektore publikoak beregain hartzen du erregulazio, ekoizpen eta finantzazioa. Gauzak horrela, historikoki Gizarte Ekonomia bazterreko parte hartzea izan du, oso lotua gizarte mugimenduen aldarrikapen funtzioei eta ase gabeko beharrezanaren ohartarazpen jarduerari. Hala ere, autore batzuen

iritzian (Pestoff, 2004) hirugarren sektorearentzat garapenerako esparru berriak sortzen ari dira azken urte hauetan geroz eta handiagoa izaten ari den zerbitzu publikoen des-estatalizazioaren bidetik.

Beste alde batetik, eredu liberal-anglosaxoniarrak merkatuaren nagusitasuna du ezaugarritzat, merkatuaren zentraltasuna azaltzen baita aberastasun eta ongizatearen ekoizpen eta erregulazioan. Merkatutik kanpo geratzen direnentzat gizarte prestazioen sistema legoke, baina horietarako irispidea definituz da mugatua, helburua lanaren bilaketa biziagoa suspertzea baita. Arrazoi honegatik eredu honek beti agertu izan du elkartegintza sare indartsu bat, hau da, merkatutik baztertuak izan direnei ongizatea eskaintzeko ardura hartzen duten bolondresez osatutako karitatezko-erakundeen (*charitable sector*) esparrua. Ongizate eredu honi *workfare regime* ere deitu izan zaio, norbanakoak hiritar eskubideak merkatuan aktiboki parte hartzen duen neurrian lortzen dituela aditzera emanez.

Eredu korporatibista-kontinental eta eredu latino-mediterranearra oso desberdinak dira gizarte babeserako sistema publikoaren hedapenari dagokionez. Dena den, eta paradoxikoa badirudi ere, antzekotasun nabarmenak dituzte Gizarte Ekonomiaren sustapen eta babes politikei dagokienean. Eredu korporatibistan estatua da erregulazioaz eta finantzaketaz arduratzen dena, baina hirugarren sektoreak tradizionalki indar edo pisu handia agertu izan du ongizatearen ekoizpenean. Eredu latino-mediterranean, ordea, ongizatearen politika publikoak erabat berandu eta modu murriztuan ezarri diren neurrian betidanik sostengatu izan da kooperatiba eta elkarteen ehun indartsu batean, sarritan estatuari aurre hartu izan diona izaera desberdinetako behar sozialak asetzeko garaian. Bi eredu hauetan, hortaz, Gizarte Ekonomiari paper garrantzitsua aitortzen zaio, eta beraz sektore publikoaren aldetik aintzat hartua da, nahiz eta lehen kasuan Gizarte Ekonomia eta sektore publikoaren arteko harremana osagarritasunean oinarritu, eta bigarrean ordezkapen erlazioak antzeman.

Orain arte aurkeztu dugun eredu orokorren lehen sarrera honi hainbat zehaztapen eta ñabardura egin dakizkiokeen arren, lehen hurbilketa bezala baliagarria zaigu jarraian aurkezten dugun politika publikoen tipologiaren tesinguru orokorra marrazteko.

2.2. Politika publiko tipologiak

Chaves eta Monzónek (2000) garatutako lana erreferentzia nagusitzat hartuz, politika publikoak eskaintzaren aldeko eta eskariaren aldeko politiketan bereizten direla aipatu behar lehenik. Eskaintzaren aldeko politikak sektorea indartzera bideratuta daude, neurri desberdinen bitartez, neurri instituzionalak, arau-emaileak, fiskalak zein dirulaguntza bidezkoak erabiliz.

Aldiz, eskariaren aldeko politikek ez dute hainbesteko eraginik egituraren bertan, hau da, ez dira zuzentzen sektorea osatzen duten erakundeak indartu

eta sustatzera, baizik eta egiten duen jarduera ekonomikoa bizkortzera. Honela, gastu publikoaren bitartez, administrazio publikoa sektore pribatuak eskainitako ondasun eta zerbitzuen “erosle” bilakatzen da. Testuinguru honetan, botere publikoek Gizarte Ekonomiako enpresak susta ditzakete zerbitzu publikoen hornitzaile gisa kontratatuz, kontratazio zein kontzertazio formulen bidez, administrazio publikoa zerbitzu horien azken-erabiltzaile edo bitarteko-erabiltzaile bilakatuz (gizarte ongizateko zerbitzuen kasuan esaterako, hola nola gizarte zerbitzu, hezkuntza edo osasun-zerbitzuetan, hiritarrak baitira zerbitzu horien azken erabiltzaileak).

Arestian aurkeztu ditugun garapen erduei lotuta, eskariaren aldeko politikek bereziki eredu anglosaxoniarran aurkitzen dute beraien aplikazioa. Politika hauek bideratzeko nagusiki bi sustapen bide erabiltzen dira: batetik, (azpi)kontratazioaren bidea, hau da, zerbitzu publikoen hornikuntza beraien eginbeharretan motibazio sozial nabarmena erakusten duten enpresen (*social enterprise*) bitartez egituratuz; eta bestetik, zeharkako finantzazio gisa eza-gutzen dena, erabiltzaileen eros-ahalmena handitzen duena. Bide honetatik azken erabiltzaileei prestazio ezberdinak egokitzen zaizkie nagusiki hirugarren sektoreko erakundeek eskainitako zerbitzuak eros ditzaten.

Lehen bereizketa hau eginda, baieztatu behar da Euskadin ezartzen den eredia eskaintzaren aldeko politiken eredia dela nagusiki. Aipaturiko politiken gehiengoa Gizarte Ekonomiaren egitura suspertzera bideratua dago, neurri ezberdinak erabiliaz. Aurrerago ikusiko ditugu xehetasunez eskaintzaren aldeko politika horien aplikazio ezberdinak.

Eskaintzaren ikuspuntutik planteatutako Gizarte Ekonomiaren sustapen politika publikoak, era berean, bi bide nagusitatik egikaritzen dira, Chaves eta Monzónek (2000) finkatu dutenari eutsiz: lehena formula zuzena litzateke, Gizarte Ekonomiako erakundeei zuzenki bideratutako laguntzen bidea, eta bigarrena, enplegu politika orokorrangoan baitan, Gizarte Ekonomiaren erakundeentzako aplikazio espezifikoak izan dezaketen laguntzen bidea. Jarraian aurkezten dugun taulak laburbiltzen ditu adierazitako politikak.

1 Taula: Politika publikoak, enplegua eta Gizarte Ekonomia

Gizarte Ekonomiako erakundeei zuzendutako politikak

- *Eskaintzaren aldeko politikak (sektoreko erakundeei bideratuak)*
 - Neurri instituzionalak
 - Finantza neurriak
 - Zerbitzu errealean bitartez emaniko babes ekonomikorako neurriak
- *Eskariaren aldeko politika (zeharkako finantzazioa)*

Gizarte Ekonomiaren erakundeetan eragiten duten enpleguari zuzendutako Politikak

- Enpleguaren sorkuntza eta egonkortzeari bideratutako laguntzak
- Langileen prestakuntzara bideratutako laguntzak
- Beste neurri batzuk

Iturria: Chaves eta Monzón (2000) (Itzulpena egileona).

Aurkezturiko eskemaren ildotik, jarraian azalduko dugun euskal Gizarte Ekonomiaren sustapen politika publikoak nagusiki eskaintzaren aldeko politikak hartzen ditu kontuan, hiru ardatzetan antolatuko ditugun neurri instituzionalen garapenarekin:

(i) Aitortza instituzionala: sustapenerako erakunde publiko eta publiko/ pribatuen existentzia, (ii) aitortza legala: araudi orokor eta zerga-araubide berezien existentzia, eta (iii) dirulaguntza politika.

3. GIZARTE EKONOMIAREN PISUA EUSKADIN: DEFINIZIOA ETA DATU KUANTITATIBOAK

Gizarte Ekonomiaren garapen, sustapen eta finkapenerako Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) administrazio publikoak garatzen dituen politika publikoen azterketa egin aurretik, Gizarte Ekonomiak Euskadin lortu duen garrantzia aztertuko dugu, nagusiki Arrasateko kooperatiba taldearen eraginez baina baita, nahiz eta neurri txikiagoan, lan sozietateen garapenagatik ere. Alabaina, egiari zor, beste zenbait enpresa esperientzia aipatzea ere ontzat jo behar litzateke, aipaturiko figura juridikoekin loturarik ez izan arren, Gizarte Ekonomiaren inguruabarrean garaturikoak baitira, besteak beste: gizareratze eta laneratze enpresak, enplegu zentro bereziak, elkartasunezko ekonomiako enpresak eta nagusiki elkarte eta fundazioek osatzen duten mozkinenez besteko erakundeen gizarte ehuna ere.

Aipatzekoa da maila teoriko batean Gizarte Ekonomiaren baitan arestian aipaturiko enpresa-esperientzia guztiak barnebildu arren (Chaves eta Monzón, 2007), euskal administrazio publikoak bere politika publikoak egituratzeko orduan, kooperatiba eta lan sozietateen esparrura soilik mugatu duela bere ekinbidea.

Berriki EZAI fundazioak argitara eman duen txostenean jasoa geratzen den moduan, euskal Gizarte Ekonomiak Euskadiko ekonomian eta konkretuki enpleguan izan duen pisu erlatiboak azken 15 urtean joera gorakorra erakutsi du modu iraunkorrean, bere hazkunde erritmoa Euskadiko bataz bestekoaren gainetik kokatu delarik. Joera gorakor hau areagotu egin da aipatu epealdiko azken urteetan, %7ko tasetaraino iritsiz. Gipuzkoako lurralde historikoak du Euskadiko Gizarte Ekonomian pisu erlatiborik handiena, enplegu osoaren %53a bereganatuz, Bizkaiako %38 eta Arabako %10aren gainetik (Eusko Jaurlaritzan).

Enpresa berrien sorkuntzari dagokionez ere berdin antzeko fenomenoak ikus daitezke: Gizarte Ekonomiak orokorki joera dinamikoagoa izan du azken 15 urteetan EAEko ekonomiaren bataz bestekoak baino. Enpresa berrien agerpen prozesu hau bereziki esanguratsua da sorturiko enpresa txikien alorrean, funtsean lan sozietateen ugaritzeak eraginda. 2006. urterako lan sozietate berrien eraketan mantsotze bat eman arren, ordutik hona orohar lan sozietate

eratueta kokaturiko enplegua mantendu egin da. Kooperatiba handiek, beren aldetik, plantilen etengabeko hedapena ezagutu dute epealdi honetan².

Adierazi behar da, bestalde, Gizarte Ekonomiaren enpresen artean pertsona gehien biltzen dituen jarduera-adarra industria dela, horien atzetik leudekeelarik pisu erlatiboari dagokionez zerbitzu sektorea, eraikuntza eta nekazal sektorea, hurrenez hurren. Guztira 63.073 langile dira 2.500 kooperatiba eta lan sozietateren kudeaketa eta jabegoan partaide.

Euskal kooperatibetan 54.500 langileri ematen zaie lana; Euskadiko Kooperatiben Konfederazioan ordezkatuak egonik, 6 federazio sektorialetako 675 enpresen bitartez. Federaziorik handienak, ERKIDeK, bere baitan biltzen ditu Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa (511 enpresa eta 33.152 langile, horietatik 23.134 bazkide), Kreditu Kooperatibena (2 enpresa, 452 sukurtsal eta 2.525 langile) eta Irakaskuntza Kooperatibena (76 kooperatiba 5.142 langilerekin, 4.100 irakasletik gora eta 54.500 ikasle baino gehiagorekin). Bere aldetik, Nekazarien Kooperatiba Federazioak 71 nekazal kooperatiba eta 621 langile biltzen ditu. Garraio Kooperatiben Federazioa 6 enpresa eta 650 langilerekin gehitzen da, horietatik 581 bazkide direlarik. Azkenik, Kontsumo Kooperatiben Federazioa legoke, 9 enpresa kooperatibo eratuta, 10.233 langile eta horietatik 7.680 bazkide izanik. Enpresa kooperatiba guzti hauek 10.460 milioi euro inguru fakturatzen dute gutxi asko. Bukatzeko, azpimarratzekoa da Konfederazioaren aterkipean Euskadiko bazkide kooperatibisten % 95 sartzen dela, Arrasateko kooperatibak direlarik enplegu eta sorturiko balio erantsiari dagokionean esanguratsuenak.

Esan bezala, kooperatiben eremuan *Mondragon Humanity at Work* azpimarratu behar da, bai sektorean duen pisuagatik eta baita historikoki euskal administrazio publikoarekin izan duen lankidetzat harreman estuagatik ere. Gaur egun, *Mondragon* taldea 264 enpresek osatzen dute eta 4 taldeetan banatzen dira: talde finantzarioa, banaketa taldea, talde industrial eta ikerketa eta heziketa taldea. 2007. urte bukaeran 103.371 pertsonaz osaturiko lan taldea osatzen zuen. Industri taldeak 14.952 milioi eurotako salmentak burutu zituen eta finantza taldeak 12.332 milioi eurotako negozioa izan zuen. *Mondragon* taldea euskal enpresen artean lehena da eta zazpigarrena Espainia guztian. Gainera Europar langileen partizipazioa %50 baino handiagoa duten enpresen artean handiena da.

2007. urte bukaeran *Mondragon* korporazioak bere kooperatiba eta sozietateetan zituen 103.371 langileetatik 38.335ek EAE-en egiten zuen lan, hau da, EAE-eko langileen %3,9 eta industria sektoreko enpleguaren %9,1. Gipuzkoako lurralde historikoan enplegu industrial %16,3ra igotzen da, hau

2. Gizarte Ekonomiako estatistiken argitalpen eguneratuagorik oraindik eskuragarri ez dagoenez, aipaturiko datuak Eusko Jaurlaritzak 2008an argitaratuak dira, 2004-2006 urtealdirako datuekin.

da, sei langiletik batek, *Mondragon* taldeko enpresaren batean egiten zuen lan. Sektore ez industrialetan berriz, enplegu sortzaile nagusienak Euskadiko Kutxa eta Eroski dira, finantza alorrean eta banaketa sektorean, hurrenez hurren.

2007. urteko datuak kontuan hartuz, *Mondragon* taldea Gipuzkoan langile kopuru handieneko enpresa taldea zen, 22.324 langilerekin, baita Bizkaian eta Nafarroan ere 12.976 eta 4.848 langilerekin. Araban, aldiz, laugarren tokian aurkitzen zen 3.035 langilerekin.

Datu horiek guztiak eskutan, pentsatzekoa den bezala, EAEko Gizarte Ekonomiarako politika publikoak hein handi batean Arrasateko Kooperatiben garapenari, sustapenari eta sendotzeari begira eratu dira. Okertzeko beldurrik izan gabe esan daiteke Gizarte Ekonomiari eragiten dieten egungo araudi eta erakundeak *Mondragonek* bultzatutako eskaeren emaitza direla.

Bestelako esparruak landuz, lan sozietateei dagokienean esaterako, EAEn bere presentzia bereziki garrantzitsua da, batez ere industria sektorean. Euskadiko lan sozietateen elkarteak (ASLE) 300 enpresa biltzen ditu, 9.000 bazkide-langile inguruz osatuak, estatu espainiarreko lan sozietateen % 16 suposatzen dutelarik, Euskadiko ekonomiaren pisu erlatiboa estatu mailakoaren %6 buelta horretan kokatu arren.

Lehenago aipatu dugunari eutsiz, administrazio publikoak Gizarte Ekonomiako erakunde gisa ez kontsideratu arren, zailtasun fisiko eta psikologikoak dituzten pertsonak enplegatzeko enpresak, “enplegu zentro espezial” gisa ezagunagoak, doktrina zientifikoak modu oso orokortuan Gizarte Ekonomiaren esparruan kokatzen ditu. EAEn zentro hauen gehiengoak EHLABE (Euskal Herriko Lan Babestuko Erakundeen Elkarte) elkartean bilduta dago, eta orotara nola-halako ezintasuna duten 5.500 pertsona enplegatzen ditu³.

Bestalde, gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko enpresen artean, Euskadi mailan GIZATEA elkarte nabarmendu behar litzateke⁴. 2007an sortu zen REAS Euskadiren⁵ ekimenez, Equal Lamegi proiektuaren testuinguruan. GIZATEAren helburuak laneratzeko enpresen arteko lankidetzaz sustatzea, hobetzea eta sektorea indartzea dira, erakunde publiko eta gizartearen aurrean ordezkari gisa funtzioa betetzeaz gain. Sare hau 43 enpresek osatzen dute, bereziki ingurugiro alorrean, garbiketa eta mantenu

3. Zailtasun fisikoak eta psikologikoak dituzten pertsonen multzoa EAE-n 60.000 pertsona ingurukoa estimatzen da, horietatik %47 (27.700 pertsona) lan egiteko adinean diren biztanleria aktiboa liratekeelarik (Barea, 2008).

4. www.gizatea.net

5. Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren sarea. www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

jardueretan, ostalaritzan edota gizarte zerbitzuekin erlazionaturiko sektoreekin jarduten dute eta 492 langile inguru ari dira egun bertan lanean.

REAS Euskadi, bere aldetik, enpresen sare bezala egituratzen da, elkar-tasunezko ekonomiaren garapena bultzatu asmoz. Garapen pertsonal eta komunitarioa helburu harturik, bere “elkartasun eskutitzean” jasotzen ditu bere jatorrizko printzipioak: berdintasuna, enplegua, ingurugiroa, lankidetzaz, mozkin asmorik eza eta komunitatearekiko konpromisoa. Egitasmo honetan laneratze enpresak, gizarte ekimeneko edota onura-publikoko kooperatibak, hirugarren sektoreko lan sozietateak eta xede soziala duten elkarte eta fundazioak barneratzen dira. Guztira 43 erakunde dira eta soldatapeko langileez gain, langile bolondresen presentzia ere esanguratsua da.

4. EUSKAL GIZARTE EKONOMIAREN GARAPEN ETA SUSTAPENERAKO POLITIKA PUBLIKOAK

Behin euskal Gizarte Ekonomiaren datu esanguratsuenak aztertu ondoren, lehen atalean aipaturiko sektorea sustatzera bideratzen diren politika publikoen azterketa zehatza burutuko da jarraian. Politika hauek lanaren lehen atalean azaldutako tipologiaren arabera antolatutik daude.

4.1. Aitortza instituzionala

a) Ordezkaritza organoak Administrazio Publikoan

Administrazio Publikoak Gizarte Ekonomia sustatzeko eta bultzatzeko konstituzioaren (129.2 artikulua) eta Estatutuaren (10.23 artikulua) agin-pidea du. Horrela, 1979an onartutako EAEko Autonomia Estatututik sortutako Euskal Administrazio Publikoak, Gizarte Ekonomiaren (Kooperatibek eta Lan Sozietateek osatutako sektorearen) garrantzia aitortu zuen.

Aitortza honen ondorioz, Eusko Jaurlaritzak bere jaiotzatik Gizarte Ekonomiari arreta eta laguntza eskaintzen dio administrazioaren egitura eta organigramaren barruan sortzen duen Zuzendaritza berezi baten bidez.

Egun, zenbait doiketen ondoren, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritza, Enplegu eta Gizarte Galetako Sailaren egitura organiko eta funtzionalaren barne aurkitzen da. Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzari esleitu zaizkion eskumenen artean, esanguratsuenak ondorengo hauek dira: a) Kooperatiben eta Lan Sozietateen (mugatuak eta anonimoak) erregistroa kudeatu, b) Gizarte Ekonomiako Hezkuntza Programak eta Sustapen Laguntzak kudeatu, eta c) Euskal Kooperatiben 4/1993 legea betearaztearekin lotutako ikuskaritza funtzioa burutu.

b) Sektore publikoaren parte hartzea duten Gizarte Ekonomiaren sustapenerako entitate publiko eta pribatuak

Aipatu beharra dago sustapen, hedapen edo zabalkunde jarduera ezberdinen artean, EAEn administrazio publikoaren erakunde publiko desberdinetatik burututako sustapen, koordinazio, hedapen eta aholkularitza jarduerak edo ekintzak. Erakunde horien artean ondorengoak nabarmentzen dira:

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (EKKG), 1983an sortu zen (azaroaren 15eko 207/1982 Dekretua) Kooperatibismoaren sustapen eta hedapen organo goren moduan. Halaber, kooperatibismoarekin erlazionatutako gaietarako euskal administrazio publikoaren aholkularitza organo publiko moduan sortua, zeinak izaera juridiko propio eta bere funtzioak burutzeko jarduteko gaitasun osoa duen⁶. Helburu legalak betetzeko, Kontseiluak euskal parlamentuak hobetsitako aurrekontuko zuzkidura du, eta baita Kontseiluaren esku jartzen diren iraungitako eta eraldatutako Kooperatiben funts banaezinak ere. Era honetara, Kontseiluak araudiak finkatzen dituen helburuak betetzeko hainbat programa aurrera ateratzeko baliabide finantzarioak eskuratzen ditu; batzuk Kontseiluak zuzenean kudeatzen ditu, eta beste batzuk mugimendu kooperatiboen elkarteen eta euskal unibertsitateen esku daude.

Oinarri S.G.R., elkarrekiko berme-elkartea, besteak beste, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak parte hartua eta Gizarte Ekonomiako enpresei eta euskal enpresa txiki eta ertainei finantza abalak eta abal teknikoak ematen espezializatua den finantza entitatea. Honako finantza entitate hau Euskadiko Kooperatiben Federazioen eta Euskadiko Lan Sozietateen Elkartearen behar finantzarioei erantzun nahian Espainiako Bankuak baimenduta 1997an eratu zena.

Erakundeak hasieratik harrera ona izan zuen bere jardura zuzentzen zuten kooperatiben, lan sozietateen eta Euskadiko langile autonomoen aldetik. Ondoren, merkatuaren eskariari jarraituz, OINARRI-k bere bezero taldea zabaltzea hitzartu zuen eta ondorioz, gaur egun, izaera juridiko desberdineko enpresa txiki eta ertainekin lan egiten du.

Elkar-Lan, Koop. E. 2003an Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak, Lan Elkartuko, Hezkuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioak (egun, ERKIDE) eratutako bigarren graduko kooperatiba da. Bere helburua kooperatiba enpresen sustapena da eta ondorioz, enplegu kooperatiboa sortzea. Elkarte honen sorreratik, urtero 40 bat inguru lan elkartuko kooperatiba eratu dira, batzuetan beste 250 lanpostu sortuz. Sozietate merkantiletik kooperatibetara eraldatzeko prozesuetan ere parte hartzen du. Hala nola, Elkar-Lanek enpresa proiektuei doako aholkularitza,

6. Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren erregulazioak (338/1987 dekretua, urriaren 27a, 208/1982 dekretutik azaroaren 15ekoa) ebatzi zuen legez, Gizarte Ekonomiako Zuzendariak beteko du Kontseiluko Lehendakari jardura.

proiektuaren ibilbidea, kooperatiba hezkuntza, dirulaguntza eta laguntza publikoen informazioa eskaintzen du. Eta kooperatiba bat sortzen denetik urtebetez tutoretza dohainik eskaintzen du.

Elkar-Ikertegia, Koop. E. 2005ean eratua. Elkarrekin kooperatibis-
moarekin erlazionatutako legedi eta alderdi sozioekonomikoetan ikerke-
tak eta azterketak egiten ditu. Euskal administrazio publikoa, Euskadiko
Kooperatiben Goren Kontseiluaren bitartez, zein Kooperatiba Mugimendua,
Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren bitartez, entitate honen sozio dira.

*Bitartu: kooperatibetako gatazken ebazpenak ematen dituen euskal zer-
bitzua.* Euskal kooperatiben mugimenduaren zerbitzura dagoen erakunde
honek kooperatiben artean, bazkideen beraien artean eta kooperatibak eta baz-
kideen artean sortzen diren gatazketan parte hartzeko helburua du. Euskadiko
Kooperatiben Goren Kontseiluko egituraren zati da eta bere zerbitzuak dohai-
nik eskaintzen ditu, erreglamendu bidez araututako funtzio arbitralak, adiski-
detza funtzioak eta bitartekaritza funtzioak eginaz.

PROMOKOOP kooperatiben sustapenerako fundazioa. Mondragon tal-
deak eta Euskadiko Kooperatiben Konfederaziok eratu zuten fundazio hau.
Euskadiko Kooperatiba Goren Kontseiluak ere parte hartzen du. Fundazio
honek fondo bat kudeatzen du eta bere helburua izaera estrategikoa duten
proiektu kooperatiboak abian jartzea da.

Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua –(GEZKI)–
Institutu hau Euskal Herriko Unibertsitateko egituraren finkatutako ikerketa
zentroa da. Bere funtzioa Gizarte Ekonomiako alorrean irakaskuntza- eta iker-
keta-jarduerak burutzea da.

GEEB-Gizarte Ekonomiako Euskal Behategia. GEZKI institutuan sortu
zen Gizarte Ekonomiako behategi hau eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzen
du. Gizarte Ekonomiaren ekarpeni buruzko informazio zehatza eta jarraitua
emateaz gain, Gizarte Ekonomiako eragile desberdinen arteko harremanak
sendotu eta sinergiak bultzatzea ere bere eginkizunen artean dago.

4.2. Aitorpen legala

a) Erkidegoko legedia

1978ko konstituzio espainiarreko 129.2. artikulua Espainiar estatuak
kooperatiben garapena bultzatu behar duela ezartzen du. Euskal Autonomia
Estatutuak (3/1979, abenduak 18ko lege organikoa) 10. artikuluan hartzen du
esandako aginpide konstituzionala eta eskuduntza eskusiboak aintzatesten
zaizkio gai kooperatiboetan. Horren ondorioz, 1982an Eusko Legebiltzarrak
kooperatiben legea onetsi zuen, hain zuzen otsailak 11ko 1/1982 legea.

Lege hau 4/1993 legearen bitartez eguneratu zen 1993ko maiatzaren 24ean. Beranduago, 1/2000 eta 8/2006 legeetan jasoak daude zenbait artikuluren aldaketak, zeinak, hurrenez hurren, maiatzaren 29an eta abenduaren 1ean onartu ziren.

Eusko Jaurlaritza kooperatiben aintzatespenean eta sektorearen erregulazioan aitzindari izan da estatuan. Otsailaren 2ko 64/1999 Dekretuak prozedimenduaren erregelak eta “gizarte onurako kooperatiba” sozietateen betekizun erlatiboak finkatu zituen, eta ondoren, apirilaren 14ko 61/2000 dekretuak “gizarte ekimeneko kooperatibak” arautu zituen. Azken horiek mozkin asmorik gabeko entitateak dira, eta gizarte helburu askotarikoak dituzte, besteak beste, osasungintza, hezkuntza, kultura edota beste gizarte eremuetako jardueren bidez; edo gizarte bazterketa jasaten duten pertsonen lan integrazioa lagunduz edo orohar, merkatuak asetzen ez dituen gizarte beharriaren estaldura lagunduz.

Kooperatiba munduak jasaten dituen aldaketa etengabeei erantzuteko asmoa du legediak⁷. Horrela, martxoaren 29ko 58/2005 Dekretuak Euskadiko kooperatiben legediaren erregulamendua onetsi zuen. Bertan kooperatibetako bazkide mota desberdinen egikaripen juridikoaren erregulamendu bidezko garapena zehazten da, besteak beste, bazkideen eskubideak eta betebeharrak ere arautzen ditu⁸.

Lan sozietateei dagokienez, kapital sozialaren erdia baino gehiago enpresaren langileenak dira. Horregatik, nahiz eta oraindik kooperatiben mailan ez egon, kapital sozial gehiena langileena da. EAEk ez du gai honetan esku-duntzarik, eta beraz lege estatalaren bidez dago arautua. Lan sozietateen martxoaren 24ko 4/1997 legea, arau erreferentzia nagusia dela esan daiteke, nahiz eta ondoren askotan eraldatu den⁹.

7. Honen froga azken urteetan argitaratu diren dekretu eta lege desberdinak dira. Bertan nabarmenduko genuke Euskadiko kooperatiben funtzionamenduaren eta antolaketa-erregelamendua zehazten duen martxoaren 29ko 59/2005 dekretua, Euskadiko kooperatibetan lan arriskuen prebentzioaz aritzen den urtarrilaren 29ko 18/2008 dekretua, edo, ekainak 25eko 6/2008 legea, Euskadiko kooperatiba txikiena, kooperatiba bat sortzeko 2 kide nahikoa direla adierazten duena.

8. Ondoren uztailaren 18ko 152/2006 dekretuarengatik eraldatu zen. Dekretu honen bidez Euskadiko kooperatiben legearen erregelamenduko 3. artikulua aldatzen da. Ikus GEZK1-k EKGK-rekin batera argitaratutako “*Manual de Derecho de Sociedades Cooperativas*”.

9. Gizarte segurantzaren zerga inguruko erreformen legea abenduaren 30eko 50/1998 legearengatik ordezkatua zen, baita ere finantza sistema erreforma neurrien azaroaren 22ko 44/2002 legea. Beranduago neurri fiskal, administratiboak eta gizarte mailakoak abenduaren 30eko 62/2003 legea, eta azkenik zerga sozialei dagokien martxoak 11ko 4/2004 lege-gintzako errege dekretua. Azkenik, urriaren 2ko 2114/1998 errege dekretuak lan sozietateen erregistro administratiboa erregulatzen duena.

b) *Politika Fiskala*

EAEk Ekonomia Ituna dela eta, zergen gaineko eskumen erregulatuak zabalak ditu. Itundutako zergen artean sozietateen gaineko zergak, ondare-ekonomikoen gaineko zergak eta egintza juridiko eta dokumentatuak buruzkoak, egintza ekonomikoko zergak eta ondare higiezinaren gaineko zergak daude. EAEn garatu da konpetentzia erregulatuak hau, eta ondorioz bada zerga tratamendu berezia kooperatibentzat. Zerga hauetatik guztietatik arazorik gehien ematen dutenak sozietateen gaineko zergak dira.

Euskal instituzio publikoek kooperatiben gaineko eskuduntza osoa dute. Euskadiko kooperatiben 4/1993 legean jasota daude eskuduntza hauek. 1978ko konstituzio espainiarrean eta 1979an EAEko autonomia estatutuaren kooperatibismoa bultzatzea eskatzen zaie botere publikoei. Horregatik, kooperatiben sustapenerako eta garapenerako neurri gehiago hartzen joan dira, neurri fiskalak tarteko.

EAEko lurralde historiko bakoitzak dagokion kooperatiben erregimen fiskala du, non, kooperatiben mozkinen gaineko zergaren araupetza ematen den. 2008an EAEko elkartearen gaineko zerga erreformatu zen eta kooperatiba txikiek %18a ordaindu behar dutela erabaki zen eta handiek %20a, puntu bat jaitsiaz aurreko tipoei. Bien bitartean, gainerako enpresei aplikatutako kargak %32,5etik %28ra jaitsi dira eta elkarte txikiak direnei berriz %30etik %24ra aldatu zaie. Honek esan nahi du badela baterakidetasun bat kooperatiben kargen eta gainerakoaren artean, nahiz eta oraindik diferentzia apur bat bada. Kooperatibek abantaila batzuk dituzte, halaber, tokiko zergapetzeari.

Desberdintasun hauetatik gain, zerga-oinarriaren kalkuluan ondorengo hoberi hauek dituzte: Derrigorrezko Erreserba Fondoaren %50a, Hezkuntza eta Kooperatiben Sustapenerako Fondoak, beti ere, fondo hau soberakin garbien %30a baino gutxiago bada. Baina abantaila hauek auzitan daude Europar Batasunean eta eztabaidagai dira egun.

Eztabaida, Europar Batasunak kooperatiben tratamendu fiskaleko desberdintasun hauek nola interpretatuko dituen jakitean datza, hain zuzen, estatuaren laguntza bezala katalogatuko ote dituen ala ez. Gaur egun Europar Batasuneko epailetan daude epairen zain.

4.3. **Administrazioaren diru-laguntza politika**

EAEko administrazio publikoko Gizarte Ekonomiari dagozkion dirulaguntza banaketan emaitzak ikusiaz, esan genezake politika hau oso emankorra dela. Elkarteak sortu zaizkien beharrei erantzunez diru laguntza programak egokituz joan dira, honetan Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzak protagonismo handia duela.

Gizarte Ekonomiako enpresak bi modutara jasotzen dituzte laguntzak. Alde batetik, inbertsio horizontalean oinarritzen diren programen bidez, enpresa sektore horretara zuzentzen ez bada ere eta, beste aldetik, Gizarte Ekonomiako enpresentzako laguntza espezifikoak. Laguntza horizontalen artean, *Lana bilatzeko laguntza* aurkitzen da.

Jarraian, Gizarte Ekonomiako enpresei ematen zaizkien laguntza programak azalduko ditugu. Laguntzak hauek lirateke:

- 1) *Gizarte Ekonomiari ekiteko laguntzak*: programa honi zuzendutako agiriak bikoiztu egin ziren 1999-2004 denboraldian. Programa honek laguntza totalaren %32 hartzen du, zeinaren xedea enpresa berriak sortzea den eta horretarako hiru azpilaguntza erabiltzen ditu. Alde batetik, Gizarte Ekonomiako enpresen sustapen eta eraketarako laguntza dago. Beste aldetik, enpresen barnean bazkide langileek sustaturiko enpresa-ekimenentzako laguntza. Eta azkenik, Gizarte Ekonomiako enpresen lurralde sustapen planifikaturako laguntzak.
- 2) *Gizarte Ekonomiako enpresen elkarte egiturak sendotzeari zuzendutako laguntzak*. Dirulaguntza jasotzen duten eragiketak mantenerako egitura gastuak eta elkarkortasuna duten erakundeen finkapenerako dira, helburu legalak betetzeko asmoarekin. Federazio Sektore ezberdinetako euskal kooperatibei zein Euskal Kooperatiben Federazio eta euskal lan sozietateen taldekatzei (ASLE) zuzendutako laguntzak dira.
- 3) *Gizarte Ekonomiaren arloan ikasketak zabaltzeko beka*. Urteroko deialdia da Gizarte Ekonomia inguruan ikerketa bat burutzeko. Beka jasotzen duenak Gizarte Ekonomiako gaiaren inguruan lan egin behar du.
- 4) *Gizarte Ekonomiako enpresetan laguntza teknikorako dirulaguntzak*. Laguntza jasotzen duten jarduerak mota ezberdinetakoak dira: kudeaketa tresna berriak barneratzeko, hala nola, kudeaketa planak eta estrategia planak; 50 langile baino gutxiago dituzten enpresetan administrazio aholkularitza emateko; eta baita 10 langile baino gutxiagoko enpresetarako administratzaileei aholkuak emateko ere.
- 5) *Gizarte Ekonomiaren Prestakuntzarako laguntzak*. Administrazio publikoan ezagutzen den laguntza zaharrenetakoa da. Programa honetan, arlo honetarako esleitutako aurrekontu totalaren %19,5 gastatzen da. Programa honen bidez, Eusko Jaurlaritzak kooperatiben sustapenerako heziketa bideratzen du. Modu honetara, EAEko botere publikoek, gizarte interes moduan barneratzen dute kooperatiben garapena, sustapena eta eraginkortasuna.

Gizarte Ekonomiaren zabalkuntzarako, heziketarako eta ikerketarako balio duten ekintzak dira, eta horiek burutzeagatik onuradunak koo-

peratiba eta lan sozietateez gain, fakultateak, unibertsitate institutuak eta Gizarte Ekonomiako ikerketaz eta heziketaz arduratzen diren entitate publikoak nahiz pribatuak izan litezke. Bestalde badaude ikas materialarentzako laguntzak ere.

- 6) *Gizarte Ekonomiako enpresa-lankidetzarako laguntzak.* Elkarren arteko lankidetzaz egiten diren ikerketak subentzionatzen dira, hau da, lankidetzaz-azterlanak (produktu berriak; zerbitzuen bateratzea; teknologia berriaren partaidetza erdibanatzea; finantziario metodologia berberak erabiltzea; komertzializazioan elkar laguntzea...); baita akordio formalizazio edo lankidetzarako egiturak sortzeko; bategite edo fusio prozesuetarako; eta azkenik, dagoeneko existitzen diren lankidetzaz enpresaren batean parte hartzeko.
- 7) *Enpresetan langileen parte-hartzea bultzatzeko laguntzak.* Programa honi aurrekontu globalaren %8,9 eskaintzen zaio, zeina %64 batean hazi den 1999-2004ko denboraldian. Laguntza bi modutakoa izan liteke Gizarte Ekonomiako enpresa den edo ez kontuan hartuz. Lehenengo kasuan, langileari Gizarte Ekonomiako enpresa batean bazkide bilakatzeko laguntzen zaio. Bigarren kasuan berriz, langilearen parte hartzea sustatzen da, nahiz eta Gizarte Ekonomiako enpresa ez izan, eta langileek bertako akzioen jabetza eskubiderik izan ez.
- 8) *Gizarte Ekonomiako enpresetan bazkideak barneratzeko laguntzak.* Laguntza honen helburuak bi zatitan desberdinduko ditugu. Alde batetik, langabezian dauden pertsonak kooperatiba edo lan sozietate batean bazkide gisa sartzeko. Bestalde, nekazaritza, abeltzaintza, baso eta ustiapen mistoetan aritzen diren pertsonak nekazal-kooperatibetan bazkide sartzeko.
- 9) *Inbertsioak burutzeko laguntzak.* Inbertsioen finantziario hobetzeko helburuarekin ezarri ziren 2009. urtean. Zehazki, 10 langile baino gutxiago eta 5 urte beheragoko antzinatasuna duten Gizarte Ekonomiako enpresen (kooperatiba eta lan sozietateak) inbertsioak gauzatzeko eskatu dituzten maileguen interesak ordaintzeko laguntzak ematean datza.
- 10) *Aldi baterako langabezia jasaten duten bazkide langileen edo lan-bazkideen kualifikaziorako laguntzak.* 2009an onartu den beste laguntza berri bat da, zeinarekin egun bizi dugun krisi ekonomikoaren garaian lan murrizketak jasaten dituzten langileen kualifikazioa hobetzea lortu nahi den. Honela kooperatiben arteko lehiakortasuna handitzea bultzatuko da. Aipatzekoa da, nahiz eta laguntza mota berri bat izan, aurrekontu totalaren %12,6 dagokiola.

5. ONDORIOAK

Ondorioen azken atal honetan orain arte landuriko hainbat elementu berreskuratuko ditugu. Lehenik, Gizarte Ekonomiaren adierari dagokion puntua legoke, ikusi den bezala euskal administrazio publikoak Gizarte Ekonomia merkatuan eragiten duten enpresa talde gisa ulertzen baitu. Gizarte Ekonomiako Zuzendaritza, hortaz, kooperatiba eta lan sozietateei laguntza eta zerbitzuak ematera mugatzen da, bestelako zenbait figura juridiko kanpoan utziz, hala nola, laneratze enpresak, ekonomia solidarioko enpresak, edo elkarte zein fundazioak. Aldiz, nazioarte mailako azken teorizazio lanetan nabarmentzen denez, azken horiek ere Gizarte Ekonomiako erakundetzat jotzea hobetsi behar litzateke, eta honek bere isla izan behar luke Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren jardute esparruan.

Bigarren plano batean legoke Euskadiko politika publikoen tipologiak zein ereduri erantzuten dion aztertzea. Ikusi dugunez, argi geratzen da bertoko politika publikoek eskaintzaren aldeko orientazio nabarmena dutela, sektorean diharduten egiturak sendotzea eta babestea baita xederik nagusiena. Alde horretatik begiratuta hortaz, eskaintzaren aldeko politikak izateak eredu anglosaxoniarretik urruntzen bagaitu ere, sektore publikoaren esku hartzea “eskuzabalak” eredu mediterranearretik ere bereizten gaitu nabarmen. Gurea, hortaz, Gizarte Ekonomiaren esparruari dagokionean, Esping-Andersenek finkaturiko eredu korporatista eta liberal-kontserbadorearen arteko punturen batean legokeela ondorioztatuko genuke.

Legedi aldetik Gizarte Ekonomiako enpresen nortasun ezberdinduaren aitopanak politika publikoen erakundetzea ekarri du. Erakunde publiko nagusia Euskadiko Kooperatiba Goren Kontseilua da. Kontseiluaren ekimenez sektoreko federazioak eta euskal kooperatiben ordezkari nagusi den Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak indarra hartu du. Bestalde Kontseilu honek beste hainbat organoen eraketan eta finantzaketan parte hartu du: arbitrai eta bitartekari bezala jarduten den *Bitartun*, kooperatiben sustapena helburu duen *Elkar-Lanen*; kooperatiben sustapen funtsean, *Promokoopen*, kooperatibei buruzko ikerketetan jarduteko elkartean, *Elkar-Ikertegian*; eta azkenik, *Oinarri S.G.R.* elkarrekiko berme sozietatean.

Gizarte Ekonomiako enpresek Eusko Jaurlaritzako finantziatorako politika publikoetatik laguntzak jasotzen dituzte. Enpresa guztientzat, Gizarte Ekonomiako enpresak barne, diseinatzen diren izaera horizontaleko laguntzez gain, laguntza bereziak daude azken haurrentzat. Horrela, diru laguntzak esleitzen dira heziketarako, ikerketetarako eta lankidetzarako (interkooperazioarako). Sektoreko laguntza teknikoko politikek, politika publiko zuzenak eta sektoreko ordezkariak egituren sendotzea helburu duten laguntzak konbinatzen dituzte.

Bestetik, kooperatibentzat desberdindua eta oso mesedegarria den zerga politika nabarmendu beharra dago. Aldundien arauetan oinarri harturik, zerga zama arinagoak eta hainbat hobari eskaintzen zaizkie kooperatibei. Hala ere, oraindik ez dago garbi gai honi buruz zer nolako interpretazioa egingo den Europar Batasuneko erakundeetatik, estatu laguntza gisa kontsidera baititzakete.

Azkenik, egiazta daiteke Gizarte Ekonomiako politika publikoak euskal kooperatiben aldarrikapenen emaitza direla, bereziki, horien eragin sozial eta ekonomikoak eraginda. Sektore publikoko entitate publiko eta publiko-privatuak, kooperatiba federazioen eta batez ere, Gizarte Ekonomiako enpresa eta partaideen elkar lanari esker garatu da Gizarte Ekonomia inon baino areago Euskadin. Amaitzeko, egun bizi dugun krisialdiak oraintsu agerian utzi dituen lanpostu suntsiketen testuinguruan, aipatu beharreko elementutzat dugu azken bi hamarkadetan orohar, euskal Gizarte Ekonomiako enpresek erakutsi duten gaitasuna ez bakarrik lanpostuak sortzeko, baita horiek mantentzeko ere, gainerako enpresek baino modu sendoagoan kasu askotan.

6. BIBLIOGRAFIA

- BAKAIKOA, B. (1999): “Mondragón Corporación Cooperativa”, *Grupos Empresariales de la Economía Social en España*, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales y CIRIEC-España, Madril-Valentzia, 197-258 orr.
- BAKAIKOA, B., ERRASTI, A. eta BEGIRISTAIN, A. (2004): “Governance of the Mondragon Corporation Cooperative”, *Annals of Public and Cooperative Economics*, liburikia 75, 1. zk., 61-88 orr.
- BAKAIKOA, B., BEGIRISTAIN, A., ERRASTI, A. y GOIKOETXEA, G. (2004): “Redes e innovación cooperativa”, *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 49. zk., 263-294 orr.
- BAKAIKOA, B., ETXEZARRETA, A., y ETXEZARRETA, E. (2007): “La Economía Social y bienes de interés preferente: Estudio sobre las cooperativas de vivienda y de educación en el País Vasco”, *La Economía Social en las Políticas Públicas, Ciriec-España*, Valentzia.
- BAREA, J. (2008): *Economía Social e Inserción Laboral de las Personas con Discapacidad en el País Vasco*, Fundación BBVA, Bilbo.
- CHAVES, R. eta MONZÓN J.L. (2007): *Economía Social en la Unión Europea*, Ciriec-España, Valentzia.
- CIRIEC-INTERNATIONAL (2005): *La Economía Social en la Unión Europea* (Informe de R. Chaves y J.L. Monzón), Comité Económico y Social Europeo, Bruselas.
- CONSEJO SUPERIOR DE COOPERATIVAS DE EUSKADI (2009): *Plan de Gestión de 2009*, Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, Vitoria-Gasteiz.

- COMITÉ ECONÓMICO y SOCIAL EN LA UNIÓN EUROPEA (Informe dirigido por CHAVES, R. Y MONZÓN, J.L. (2008): *La Economía Social en Europa*, Unidad de Publicaciones y Visitas del Comité Económico y Social Europeo, Bruselas.
- ESPING-ANDERSEN, G. (1990): *The three worlds of welfare capitalism*, Princeton University Press, Princeton.
- EZAI FUNDAZIOA (2008): *Bases para unas políticas públicas de promoción de la Economía Social*.
- EUSKO JAURLARITZA (2008): *Estadísticas de la Economía Social. Bienio 2004-2006*, Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA (2006): *Economía Social. Punto de Partida*, Gobierno Vasco, Vitoria-Gasteiz.
- MERINO HERNÁNDEZ, S. (dir.) (2008): *Manual de Derecho de Sociedades Cooperativas*, CSCE-EKGK y GEZKI, Vitoria-Gasteiz.
- PESTOFF, V. (2004): “The development and future of the social economy in Sweden”, *The Third Sector in Europe*, Edward Elgar, Cheltenham (UK).
- RODRÍGUEZ CABRERO, G. (2000): *El Estado de Bienestar* [CDRom]. Universidad de Alcalá de Henares. Madrid.
- RODRIGO, M. (1996): “La regulación del Impuesto de Sociedades en la Comunidad Autónoma Vasca. Efectos sobre la Economía Social”, *CIRIEC-España, Revista de Economía Pública, Social y Cooperativa*, 23 zk. 135-148 orr.